

Elgoibar - 1250. zenb.
XXXI urtea - 2022-07-01



TOKIKOM

BARREN



**“Familia medikuen
espezialitatea
gutxietsita dago”**

Larraitz Zialzeta Aduriz, familia medikua



- ✓ IDAZMAKINEN SALMENTA
ETA KONPONKETA
- ✓ MULTIKOPISTAK
- ✓ FOTOKOPIAGAILUAK
- ✓ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ✓ MARRAZKETA MATERIALA
- ✓ INFORMATIKA
- ✓ FAXA

MEKANOSA

Errosario, 27-Elgoibar
943 740 284



colchonería textil hogar

San Roke kalea, 20 - Elgoibar
943 744 457 - 685 756 978
www.textillagunak.com

DESKONTUAK

%20ko deskontua ehunetan!

EXPRESS ESKAINTZAK!

**WAU28S42ES
ARROPA
GARBIGAILUA**



599 €



- I-DOS: Garbigariaren eta leungariaren autodosifikazio adimenduna, karga errealaren, arroparen zikinkeria-mailaren eta ehun-motaren arabera eta gainera programa automatikoarekin
- 30 minutuko programa azkarra
- Speed Perfect programa
- Karga-etena funtzioa
- Gehieneko edukiera: 8 kg

MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.



AURTEN BAI!

Santana ETA **Sanbartolome**

JAIETAKO ALE BEREZETAN ZURE ENPRESA, NEGOZIO EDO DENDA
JAIK ZORIONTZEN AGERTZEA NAHI BADUZU,
JARRI GUREKIN HARREMANETAN:



barren.publi@elgoibarkoizarra.eus - 688 769 657 / 943 743 704

Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.
20870 ELGOIBAR - 943 744 112
Publizitatea: 943 743 704
barren@elgoibarkoizarra.eus
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitako erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzurika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegia, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Sara Iriondo, Asier Guisasola, Maialen Sanchez. **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.885 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.

 facebook.com/barrenaldizkaria

 twitter.com/barreneus

 instagram.com/barrenaldizkaria

Maialen Sanchez

Idazlea

Nire kaleetako taupadak



"Afaritan erabilitako mahai-tresnen tintin-hotsak eta jaisten ari ziren pertsianen zaratak ziren atsedean hartzeko prestatzen ari zen herri baten soinu-banda"

Lehiotik miresten dugun Karakate mendia lehen eguzki izpiek zipritzitzen dutenean, egunsenti berri bati ongietorria ematen diote oilarraren kantuarekin iratzartzen direnek.

Burdin-sareak goraka, "irekita" dioen kartela zintzilikatzen duten dendariak, kafe usain goxoa han-hemenka... egun berri bati ongietorria.

Agian nire bizilagun gehienentzat goiza izango da momenturik onena herriko giroa eta bizimodua antzemateko, une horretan ikusten baita ondoen herri baten egunerokoa: salerosketak herriko plazan, eguneroko gestioak... Kaleko giro hori gozatzen dutenek ez dakite ondo zein zorionekoak diren! Gainerako gizabanakook merezitako atsedendialdiaren zain egoten gara lantokietan, etengabe erlojuei begira, minutuak segundu bihurtu nahian.

Goizeko giroa atsegina da, baina ilunabarrak iluntzeari lekukoa "pasatzen" dionean, gure herriak benetako arima lagatzen du agerian.

Orain dela egun batzuk, nire ibilaldietako bat aprobetxatuz, gure herriko kale bat zeharkatu nuen; isiltasuna zen protagonista. Lana luzatu zitzaienen irribarre nekatuak ikusi nituen. Beste batzuk, begirada zerumugan galduta, zigarroa erretzen ikusi nituen lehioetan, beren egunaren laburpena eginez moduan, pentsamendu errepikakorrek barreneko amildegitik bota nahian. Afaritan erabilitako mahai-tresnen tintin-hotsak eta jaisten ari ziren pertsianen zaratak ziren atsedean hartzeko prestatzen ari zen herri baten soinu-banda. Barne-elkarrizketa horretan ari nintzela ondorio bat atera nuen.

Gure herriko bizimoduak gure izaera baldintzatzen du, eta berdin dio zein urrutira bidaiatzen dugun, gure lekua eroso sentiarazten gaituen herrian dagoelako, bizitzeko aukeratu dugun lekuan, gure etxean.

BARENek ez du bere gain hartzen Iritzia eta Eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jarzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

Ohorea errespetuarekin ala gabe?

Askori gustatzen zaigu mendia; askok mendian bilatzen du kirola egiteko edo paseatzeko lekua. Mendira irteteko joera lehenagotik zetorren, baina pandemia aldian areagotu egin zen. Besteak beste, Gaintxipixa inguruetara jendetza etorri izan da azken urte hauetan. Leku ederra dela, ibilaldi polita daukala eta horrelakoak irakurri edo entzun izan ditugu Lizarpe-Iturriko Zelai eta Gaintxipixa inguruaz.

Baina, itxura denez, batzuek pentsatzen dute mendia garbi edo itxura ederrekoa berez mantentzen dela, eta ez dagoela horretaz arduratu beharrik, eta ibili gaitezkeela denok nahi dugun moduan, nahi duguna eginez, zelaian edo Gaintxipixa puntan botata laga litekeela motxilan ekarritako freskagarri edo ur-ontzia, plastikozko poltsa edo dena delakoa.

Oinez ez ezik, bizikletaz, kotxez edo motoan mendian ibiltzeko joera ere ugaltu egin da, eta bideak egon arren, batzuei ez zaie asko ardura eta iruditzen zaien lekuan ibiltzea erabakitzen dute. Batzuei ez zaie asko axola inori kalte egiten dioten ala ez, biderik dagoen edo ez. Eta edozein lekutan eta edozein moduz ezin direla ibili esaten badiezu, harro erantzuten dute: "Zuri zer inporta zaizu?". Badirudi kalean errespetatu behar direla auto edo motoarekin ibiltzeko bideak eta lekuak, baina mendian ez dagoela ezer errespetatu beharrik.

Azkena ekainaren 18koa. Mendaroko gazte batzuek herritik Gaintxipixa puntara nor azkarrago iritsi egin zuten apustua. Eta korrikalariei argazkiak eta bideoa egiteko aitzakian, mendimotoan Gaintxipixa puntaraino. Ohorea omen zen apustu horretan jokoan zegoena.

Esan nien motorrarekin ezin zirela bidetik aterata zelaian gora Gaintxipixa puntara joan. "Zuri zer inporta zaizu?" erantzun zidaten, aurrez aurre jarrita. Ohorea izango da. Ba bai, inporta zait, nahi duena joan daitekeelako Gaintxipixa puntara baina ez bakoitzak nahi duena eginez. Mendia denok ibiltzeko baldin bada, denok zaindu behar dugulako, eta denok errespetatu

Lurdes

Bizitzeko
GIPUZ KOA

Ayoon eta Max

Lize

Phil

Reyes

Pablo

5 PERTSONA BIZIPEN

BIZI ITZAZU!

GIBIZEMOA TURISMOA



Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus



943 744 112



688 634 044



Azkarateko bide zaharra hondatuta

dago: "Azkarateko bide berritik ibiltzea debekatu digute txirrindularioi arriskutsua delako, eta horren ordez, Azkarateko bide zaharra erabiltzeko gomendioa egin digute, baina kontua da Azkarateko errepide zaharra hondatuta dagoela hainbat puntutan. Asfalto oso egoera txarrean dago, eta hortik ibiltzea ere arriskutsua da. Beraz, eskertuko genuke errepidea konpontzea".



Iñigean Karkizao kaleko tunela egoera

txarrean dago:

"Iñigean Karkizao eta Toletxe kaleak batzen dituen tunela ez dago batere zainduta. Argi gutxi dago, iluna da, hormak pintadaz beteta daude... Herriko puntu beltzetako bat dela iruditzen zaigu, eta eskertuko genuke txukuntzea. Oinezko askok erabiltzen dugu pasabide hori, eta iruditzen zaigu ez dagoela baldintza duinetan".



Aulkiak eta mahaiak ibaira botatzen

dituzte:

"Erreka inguruan dauden hainbat tabernetako terrazetatik ibaira botatzen dituzte aulkiak eta mahaiak asteburuetan, eta gero han geratzen dira denbora luzez. Herritarrei errespetua eskatu nahi nieke, ibaia denona da eta denon artean zaindu behar dugulako".



Uztailean hasiko dituzte Errotaberriko igogailu publikoa eraikitzeko lanak

Urdinberri Viuda De Sanz enpresak egingo ditu Errotaberriko igogailu publikoa egiteko lanak, eta 457.322,78 euroko aurrekontua izango dute, BEZa kanpo. Elgoibarko Udaletik jakitera eman dutenez, uztail hasieran ekingo diote Errotaberriko igogailua eraikitzeko lanari, eta exekuzio-epea zazpi hilabetekoa izango da. Hortaz, Udalaren asmoa da 2023ko martxorako amaituta izatea.

Errotaberrin dauden eskailera mekanikoak 2021eko martxotik daude geldirik, matxura baten ondorioz. Arazo teknikoak handiegiak zirela ikusita, konpontzea baino hobea zela igogailu publikoa eraikitzeko zuten asmoa aurreratzea erabaki zuen Udalak. Jarraian, proiektua idatzi zuten, eta, Sallobente erreka ondotik igarotzen dela-eta, URA Uraren Euskal Agentziak lanak egiteko baimena eman ondoren, lizitazioa gauzatu dute. Udaletik zehaztu dutenez, igogailu berriak 15,55 metroko altuera gaindituko du eta zortzi lagun garraiatzeko gaitasuna izango du, 630 kilora arteko mugarekin. Igogailuaren dorrea ageriko hormigoi armatuzkoa



izango da, eta beirazko itxitura batekin estalita egongo da. Igogailua egongo den dorrea San Roke espaloiarekin lotzeko 8,33 metroko pasabide metaliko bat erabiliko dute.

Udalak 280.800 euro bideratuko ditu hainbat gune asfaltatzeko lanetara

Ibilgailu astunen joan-etorrien eta eguraldiaren eraginez herriko hainbat errepide hondatuta daudela-eta, Elgoibarko Udalak asfaltatze-kanpaina bat egingo du uda honetan, eta, guztira, hamazortzi gune asfaltatuko dituzte, erdiguneko kaleetan zein landa-bideetan. Asfaltatze lan horien aurrekontua 280.844,47 eurokoa da, BEZa barne. Udalak bi hilabeteko epea aurreikusi du birzolatze-lanetarako, lizitazio publikoaren prozesua amaitu ondoren. Enpresek proposamenak aurkezteko azken eguna uztailearen 11 da. Informazio guztia www.elgoibar.eus webguneko kontratatzailearen profilean dute eskuragarri. Honakoak dira konponduko dituzten guneak: Ermuaranbide kalea, San Antolin kalea, San Pedro kalea, Santa Klara, Santa Ana, San Roke, Urazandi, Kalamua, Bernardo Ezenarro, Ermuaranbide, Toletxe kalea, Loritoko Aldapa eta Alkorta.



Malda handiko eremuetan itsasgarritasuna hobetzeko edo zorua hobetzeko, asfaltatzeko beharra duten bost landa-bide ere hautatu dituzte: Beoain, Olazarraga, Aranburu, Jauregi eta Mintxeta.

LGTBI+ kolektiboaren aldeko aldarria egin zuten martitzenean Elgoibarren



Harrotasunaren Eguna izan zen martitzenean, eta Narrutsik talde feministak deituta, elkarrateratzea egin zuten Elgoibarren, LGTBI+ kolektiboaren eskubideen alde.

Hetereoarau suntsitu, kaleetan harro eta transfobiaren aurrean, tinko! lemak erabili zituzten, egun honetaz egiten den merkantilizazioa salatuzko, "harrotasuna ez dagoelako salgai".


80 urtetik gorakoentzako bazkaria urriaren 6an egingo dute aurten, eta izena emateko epea zabalik dago irailera arte

Jubilatuen Biltokiak jakitera eman duenez, aurten urriaren 6an egingo dute 80 urtetik gorako eta urrezko ezteiak ospatzen dituzten bikoteen bazkariak. Ekimen hau Jubilatuen Astearen barruan egin ohi izan dute orain arte azaro amaiera aldera, baina urrian eguna luzeagoa denez, eta tenperatura aldetik egun epelagoak izan ohi direnez, data aurreratzea erabaki dute. Izena emateko epea zabaldu dute dagoeneko, eta Jubilatuen Biltokiko bulegoan

egin daiteke, astelehenetan edo ostiraletan, 11:00etatik 12:00etara. Urrezko ezteiak betetzen dituzten izen-ematea egiteko Familia Liburua eraman beharko da. Irailaren 19an itxiko dute izena emateko epea, baina antolatzaileek eskatu dute lehenbailehen emateko izena. Jubilatuen Astea urtero bezala ospatuko dute azaro amaieran, eta horren barruan egingo dituzte txokolatada, gabonetako saskien zozketa eta kina, besteak beste.

Erabiltzaile bat zigortu du Patronatuak Mintxetako ekintza bandalikoaren harira

Mintxetako igerilekuetako zenbait erabiltzailearen jarrera desegokiak salatu zituen Udal Kirol Patronatuak duela egun batzuk, eta, orain, egoerak okerrera egin duela salatu dute. Paper bustiarekin sortutako zikinkeria handitzeaz gain, Mintxetako bainugeletan eta aldageletan pintadak agertu direla jakinarazi dute arduradunek. Gertaera horien aurrean, instalazioen zaintza areagotzea erabaki dute, eta horrekin batera, erabiltzaile bati astebeterako abonua kendu diote, "ekintza horietan parte hartzeagatik". Patronatuak gaitzetsi egin ditu gertakari horiek: "Erantzukizuna eta errespetua eskatzen diegu erabiltzaile guztiei, eta elkarrekin lan egin dezagula zerbitzu publiko horiek zaintzen eta sustatzen".



Obrak direla eta, egunotan aparkaleku gutxiago izango ditu Mendaroko ospitaleak

Ekainaren 29an hasi zituzten Mendaroko Ospitaleko aparkalekuak berritzeko obrak, eta, ondo bidean, gaur amaituko dituzte. Helikopteroak lur hartu eta aireeratze gunea eraberritu dute, eta baita errehabilitaziora joateko inguruneko asfaltoa ere, hondatuta zegoelako. Gaez aritu dira lanean, ahalik eta kalterik gutxiena sortzeko, baina, hala ere, trafikoaren noranzkoa aldatu dute egunotarako, eta hainbat aparkaleku ez dira erabilgarri egongo. Obrak iraun bitartean ospitalera auto partikularretan ez joateko gomendioa egin dute ospitaletik, eta ahal den neurrian garraio publikoa erabiltzeko eskatu dute.



Arnoaterako bidea asfaltatuko dute Mendaron

Mendaroko Udalak lehiaketa publiko bidez esleituko du Arnoaterako bidea asfaltatzeko lana. Urte honen azken lauhilekorako aurreikusi dituzte obrak, eta enpresa arduradunak sei asteko epea izango du lanak amaitzeko. Mendaroko Plaza auzotik Arnoatera doan bost kilometroko bidea asfaltatuko dute. Bide horrek beste baserri askotarako ere balio du, eta gaur gaurkoz porlanezkoa da. Porlana zaharkituta dago gune askotan, hondoratuta eta puskatuta, eta hori berritzea izango da zeregina. Bide batez, urarentzako kanalak ere egingo dituzte bidearen alboetan. Guztira 2.190 metro koadroko eremua asfaltatuko dute. Lanak egiteko aurrekontua 103.576,17 eurokoa da, BEZ barne.

Artile bilketa egingo dute Debabarrenean

Artile bilketa egingo dute uztailaren 4an Debabarrena eskualdean, eta horretarako Mendaroko Igartualdea industriagunean kokatuko dute artilea biltzeko eremua. Arduradunek esan dute aurrez hitzordua eskatzea beharrezkoa dela 627 452 397 telefono zenbakira deituta.

Arduradunek azaldu dutenez, merkatuaren beharrak aldatu egin dira eta artileak lehen zeukan balioa galdu egin du. Bilketa honen helburua artileari irtenbide jasagarria ematea da.

Debabarreneko udalek, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Abelur nekazaritza zerbitzuak, Lurgintzak eta Landaolak bultzatzen dute ekimen hau.

Eguazteneko elkarretaratzearen ostean, oporrak hartu ditu 24/7 Plataformak



Elgoibarko Osasun Zentroa asteko zazpi egunetan 24 orduz zabalitzearen alde borrokan ari den 24/7 Plataformak eguaztenean egin zuen elkarretaratzearen ostean, udako oporrak hartzea erabaki zuen, bozketa bidez. Irailaren 28ra arte, beraz, ekitaldiak eten dituzte. Bestalde, 5.501 sinadurak biltzen parte hartu zuten elkarte eta pertsona guztiakin harremanetan jarri ondoren, jakinarazi dute urriaren 29an mobilizazio handi bat egingo dutela, eta gaineratu dute Eusko Legebiltzarrean eskatutako agerraldia oraindik ez dietela konfirmatu, eta Osasun Sailak blokeatu izanaren kezka dutela.

■ ‘Zerua eta garia’ izenburupean garagardo azoka egingo dute Mendaron, Ukrainarekiko elkartasunez



Lau eguneko garagardo azoka antolatu du herritar talde batek Mendaron, Ukrainako egoera ezagutarazteko eta ahalik eta dirukopuru handiena biltzeko Ukrainari laguntzen ari diren elkarteentzat. Uztailaren 14, 15, 16 eta 17an egingo dute, eta egitarau zabala ari dira lotzen egun horietarako. Laguntza ere beharko dute, hala ere, eta boluntarioen zerrenda osatzeari ere ekin diote.

Ukrainak ez ditu orain lehen beste albistegi zabaltzen, baina, hala ere, egoera gaiztoa bizi dute oraindik, eta gerratik ihesi atzerrian errefuxiatu diren ukrainarrak milaka dira. Mendaron bertan ere badira handik ihesi etorritako bi familia, eta bada, era berean, aurretik etorritako beste familia ukrainiar bat ere. Eta jakina, haien bueltan, ondo antolatutako elkartasun-sare bat ere bada. Ukrainatik Euskal Herrira haurrak ekartzen dituzten bi elkartek -Txernobil.org eta Txernobilen Lagunak - eta Ukraina-Euskadi kultur erakundeak beren aletxo partikularra jartzen dute gaur Mendarotik eta horiek egiten duten lana ezagutaraztea eta haientzat ahal den diru gehien batzea jarri dute helburutzat garagardo azokaren antolatzaileek.

Zerua eta garia izena eman diote egitasmo solidario honi: Lau egun iraungo ditu garagardo azokak, eta egun bakoitza giza-talde jakin bati eskainitakoa izango da. Uztailaren 14a Ukrainako Eguna izendatu dute eta instituzioei eskainiko diete eguna; uztailaren 15a enpresen eguna izango da, eta uztailaren 16an, Gazteen Eguna. Azokako laugarren eguna, berriz, Umeen eta Nagusien eguna izendatu dute.

Gune zentrala Goñati frontoian egokituko dute, eta egunero berrehundik gora laguni jaten ematea aurreikusten dute. “Enpresen egunean, kopuru hori bikoiztera ere iritsi nahiko genuke”, zehaztu dute antolatzaileek. Aitortu zuten “erronka handia” jarri dietela beren buruei eta esan ere egin dietela auzokoek ur handiegitan ez ote diren sartu, baina

**Lau eguneko azoka izango da
eta bi helburu izango ditu:
Ukrainako egoera ezagutaraztea eta
elkarteentzako dirua biltzea**

Mendaro herrian sinisten dutela nabarmendu dute. Lan handia dago egiteko, nolahi ere, eta dei egin diete herritarrei bakoitzak ahal duenean laguntzeko eskatuz. Uztargi tabernan utzi dute zerrenda, boluntario izan nahi duenak izena eman ahal dezan, eta sare sozialen bidez ere zabaldu dute laguntzeko bidea, bai eta diru-ekarpenak egiteko ere (Facebooken: ‘Zerua eta garia’) ■



Goiko argazkian Kirol Campusa, behean Atxutxiamaikaren eta Udal Ludotekaren Udaldia eta eskuman Mend...



UDALDIA MARTXAN

✍️ Ainhoa Andonegi 🗣️ Asier Orbea

Hasi da udaldia Elgoibarren zein Mendaron. Astelehenean ekin zioten aurtengo ekitaldiari, eta guztira 700 umetik gora ari dira parte hartzen. Kirol Campusean ia 300 ume eta nerabek eman dute izena aurten, eta datozen lau asteetan hainbat kirol desberdin probatuko dituzte. Atxutxiamaika eta Ludotekaren udalekuetan, berriz, 350 ume ari dira parte hartzen, *Bagatoz* lemapean. Adin tarte bakoitzerako programazioa prestatu dute, eta herrian zein herritik kanpora egingo dituzte ekintzak. Udalak 80 diru-laguntza eskaera onartu ditu aisialdi eskaintzan haurren parte-hartzea bermatzeko. Mendaron, bestalde, HH3tik LH6ra arteko 65 umek eman dute izena udalekuetan.



aroko udalekuak.





“Familia medikuen falta benetakoa da, eta epe motzean behintzat ez da egoera konponduko”

LARRAITZ ZIALTZETA ADURIZ

Familia medikua

✍ Ainhoa Andonegi / 🗣 Asier Orbea

Larraitz Zialtzeta Adurizek (Elgoibar, 1978) betidanik izan ditu gustuko zientzietako gaiak, eta Batxilergoa amaitu zuenean argi zeukan Erizaintza, Nutrizioa edo Medikuntza ikasi nahi zuela. Azkenean, Medikuntza ikasi zuen Leioan, eta BAME (MIR) azterketa Iruñean prestatu zuen. Familia medikua espezialitatea aukeratu zuen, eta gaur egun Markinako Osasun Zentroan egiten du lan. Gotzone Sagardui Osasun Sailburuak egindako adierazpenen harira, berarekin batu da BARREN, familia medikuen lanbidea nolakoa den ezagutzeko, eta baita Lehen Arretan dagoen egoera zein den jakiteko.

Zer dela-eta aukeratu zenuen Medikuntza ikastea?

Batxilergo Zientifikoa egin nuen Institutuan eta argi neukan anatomia, biologia edo estilo horretako ikasgaiak gustatzen zitzaizkidala gehien. Erizaintza, Medikuntza edo nutrizio alorreko ikasketaren bat aukeratzea erabaki nuen, eta selektibitatearen ondoren geratu zitzaidan notak aukera ematen zidanez, Medikuntzan eman nuen izena EHUn. Euskaraz ikasi nahi nuen, baina ezin izan nuen karrera guztia euskaraz egin, eta zailtasunak izan nituen gaztelaniazko ikasgaiekin. Ezin izan nintzen bigarren ziklora pasatu, ez nuelako dena gainditu, eta hain justu ere gaztelaniaz irakasten zizkiguten ikasgaiak suspenditu nituen. Orduan konturatu nintzen ez nintzela erabat elebidun. Klasea jarraitzeko kapaz nintzen, baina apunteak gaztelaniaz hartzea izugarri kostatzen zitzaidan. Karrera amaitu ondoren, BAME azterketa egin behar da, eta jende asko Oviedora joaten da, baina nik etxetik gertu egon nahi nuen, eta Iruñean egin nuen. Astelehenetik ostiralera egoten nintzen han, eta asteburuetan etxera etortzen nintzen. Nire kabuz ikasten nuen zapatuetan eta domeka deskantsatzeko aprobetxatzen nuen. Ekainetik urtarrilera egon nintzen azterketa prestatzen, eta nire buruari esan nion behin bakarrik pasatuko nintzela tramite horretatik, beraz, gainditu egin behar nuen. Oso gogorra izan zen, gaixotzeko modukoa. Iruñean egonda, sanferminak ikusi ere ez nituen egin!

Espezialitatea aukeratzeko ordua iritsi zenean, familia medikua izatea aukeratu zenuen.

Bai, dudarik gabe. Familia medikua espezialitatea egin nahi nuen, Mendaron. Ez nuen Euskal Herritik irten nahi, etxetik gertu egon nahi nuen, eta, gainera, iruditzen zait familia medikuak hobeto formatzen direla eskualdeko ospitaleetan probintziakoetan baino. Ospital txikiagoak dira, eta arreta ezberdina jasotzen duzu, ospitale handietan espezialitatea egiten ari diren egoiliar gehiago egoten direlako. Sei urteko ikasketak dira, gero BAME prestatu eta beste hiru urteko espezialitatea egin behar da. Ia hamar urteko ikasketak dira, eta Lehen Arreta ez da apenas lantzen; nik hilabeteko praktikak soilik egin nituen, baina konturatu nintzen gustatzen zitzaidala lan hura. Ez nuen nire burua bizitza guztian kardiologian ikusten, adibidez, baina bai ikusten nintzen familia mediku moduan.

*"Ezin dira hizkuntza
eta osasun arreta nahastu,
eta argi daukat familia medikuen artean
euskara ez dela oztopo"*

Espezialitate batzuetako medikuek Osasun Zentroetan pasatzen dituzte kontsultak, Eibarren esaterako, Osasun Zentroan ospitaleko kanpo kontsulta batzuk daude, baina ez nuen nire burua ikusten bizitza guztian espezialitate berean. Familia medikua izan nahi nuen, eta argi utzi nahi dut gu ere espezialistak garela. Jende askok uste du espezialistak beste guztiak direla, baina hori ez da horrela. Nik bereizten ditut ospitaleko espezialistak eta Lehen Arretako espezialistak.

Zuk argi zeneukan familia medikua izan nahi zenuela, baina ez da ohikoena. Zergatik uste duzu medikuntza ikasleek ez dutela familia mediku izan nahi?

Familia medikuen espezialitatea gutxietsita dago. Osakidetzak berak askoz diru gehiago inbertitzen du ospitaleetan Lehen Arretan baino, eta ez dut esaten ospitaleetan ez denik inbertsiorik egin behar, egin behar da, eta handia, baina Lehen Arretan ere bai. Eta ez naiz ari esaten makinarian inbertsio handiagoa egiteko, pertsonetan inbertitu behar da. Medikuri faltaren arazoa aspalditik dator, eta nik euro bat jokatu beharko banu, esango nuke egoerak okerrera egingo duela oraindik. Familia medikuak belaunaldika jubilatuko dira, eta mediku berriak prestatzeko hamar urte behar dira. Gu karreraren hasi ginenean mediku asko langabezia zeuden, eta haietako asko beste lanbide batzuetan ibili dira urteetan, medikuak falta zirela esaten hasi ziren arte, baina gaur egun ez dago medikurik langabezia. Ez dago medikurik, hori da kontua. Ni bi aste egon naiz lanetik kanpora, eta ordezkoa izan dugu ordu batzuetarako, baina ez da ohikoena. Mirariaren parekoa izan da. Ez dago ordezkapenak egiteko medikurik, eta, hala ere, esango nuke Euskal Herrian Osasun Publiko ona daukagula.



"Gauden egoeran egonda, normala iruditzen zait Elgoibarko osasun zentroa 17:00etan ixtea eta asteburuetan ez zabaltzea"

ere bai, ez dut guardiarik egiten... Nik argi neukan ez nuela guardiarik egin nahi, eta ez dut hori aukeratu, baina nahi duenak badauka aukera hori ere.

Medikuak beharrean kontsulta batzuk erizainek hartu beharko dituztela euren gain esan zuen Gotzone Sagardui Sailburuak.

Erizainek lan asko egiten dute pazienteekin orain ere, baina medikuen lana ezin dute erizainek egin, alderantziz ere egin ezin den bezala. Gure lana taldean egiten da, eta denok daukagu denon beharra, baina bakoitzak bere lanak ditu.

Medikuak erizaina behar du, eta behar du baita ere erizain laguntzailea edota zeladorea.

Politikari batek euskara eskakizunari bota dio mediku faltaren errua.

Hori izan da egoerari probetxua atera nahi izatea. Nire ustez ezin dira hizkuntza eta osasun arreta nahastu, eta argi daukat familia medikuen artean euskara ez dela oztopo, euskaraz atenditzeko gai dira gehienak. Une honetan baina, ez dago familia medikurik, ez euskaldunik, eta ez, erdaldunik.

Osasun arreta jasotzeko kultura aldatu egin beharko dugula ere esan zuen Sailburuak, eta herrietatik desplazatu egin beharko ginela osasun arreta jasotzeko. Elgoibarren, esaterako, osasun zentroa 17:00etan ixten dute, eta asteburuetan ez dute zabaltzen. Nola ikusten duzu hori?

Gauden egoeran egonda, normala iruditzen zait Elgoibarko osasun zentroa 17:00etan ixtea eta asteburuetan ez zabaltzea. Ohitu egin behar gara eta onartu beharko dugu ez ditugula zerbitzu

Zein da familia medikuen eguneroko laneko errealitatea?

Bi astez lanera joan gabe egon ondoren, eta ordekoa lanean egon dela kontuan hartuta, lehenengo egunean 40 zeregin izan ditut. Erdiak aurrez aurreko kontsultak izan dira, eta beste 20 zereginak telefono bidezko kontsultak edo zeregin administratiboak. Hamar minutu ditugu esleituta aurrez aurreko kontsultetarako, bost telefono bidezkoentzako eta zeregin administratiboetarako ere bost minutu. Denboraz justu samar ibiltzen gara, hori egia da. Bestalde, ez daukagu, esaterako, formaziorako aukera askorik, ez norbera formatzeko eta ezta mediku egoiliarak formatzeko ere. Gure Markinako osasun zentroa txikia da, landa eremuko jende asko hartzen dugu, eta formaziorako tarte txikia daukagu, baina praktiketako erizainak, esaterako, urtero hartzen ditugu eta seigarren mailako medikuntzako ikasleak ere noizbait eduki izan ditugu. Baina bestela, behin plaza finkoa eta egonkortasuna lortuta, lan baldintza duinak ditugula iruditzen zait. Soldata ona da, ordutegia

*"Jendeak
ikasi egin behar du
presak eta larrialdiak bereizten.
Gauza askok itxaron dezakete"*

publiko guztiak etxe atarian edukiko, eta nahi dugun ordutegian. Hori onartu egin beharko dugu, beste gauza asko onartzen ditugun moduan. Udaletxeko arreta zerbitzuak ere bere ordutegia dauka, eta norbera moldatu behar izaten da zerbeit behar duenean, edo epaitegiak ere ez daude herri guztietan, eskola publiko asko ere arratsalde itxita egoten dira, errenta aitorpena egiteko ere desplazatzen gara, herri txiki askotan ez dago garraio publikorik... Beharra daukagunean gu moldatzen gara, eta osasun arreta jasotzeko ere gauza bera egin beharko dugu.

5.501 herritarrek sinatu dute murrizketen kontra eta Elgoibarko osasun zentroa 24 orduz eta astean zazpi egunez irekitzeko. Pandemiagatik egin zen egokitzapen bat zela esan zuen Osasun Sailak, baina oraindik berdin jarraitzen dugu.

5.501ek sinatu dute, baina beste horrenbestek ez dugu sinatu. Batzuk ez daukagu ezer sinatzeko ohiturarik, baina beste askok seguru ez dutela sinatu ez dutelako nahi izan. Elgoibarren ez gaude gaizki, benetan. Ohitu gara Etengabeko Arreta Gunea bertan edukitzera, baina Mendaroko eta Eibarko ospitaleak bertan ditugu, eta orain gutxi arte anbulantzia medikalizatua ere Elgoibarren geneukan. Gainera, Elgoibarko osasun etxeko Etengabeko Arreta Gunea kendu badute izan da ez zelako bideragarria. Ez pentsa Elgoibarko zerbitzu horretan lan egiten zutenak langabezia daudenik, ez da horrela. Nire ustez, bereiztu egin behar dira emergentziak, larrialdiak eta presak. Batzuetan dena larria dela pentsatzen dugu, baina askotan presa izaten da larrialdia baino gehiago. Emergentzia bat dagoenean dena laga eta berehala hura atenditu behar da, larrialdi kasuetan bukatu daiteke norberaren zeregina eta gero larrialdia atenditu, baina beste kasu asko norberaren presak izaten dira. Beste leku askotan Elgoibarren baino askoz egoera okerragoan daude, eta jendea ohituta dago.

Eibarko eta Mendaroko ospitaleak aipatu dituzu, baina garai batean esan zuten ospitaleetako larrialdi zerbitzuak gainezka zeudela.

Bai, jende asko presa kontuekin joaten delako, eta ez larrialdiekin. Ez denak, batzuek benetako larrialdi kasuetan joaten dira, baina beste asko presa dutenean joaten dira larrialdi zerbitzuetara, eta jendeak ikasi egin behar du presak eta larrialdiak bereizten. Gauza askok itxaron dezakete.

Telefono bidezko arreta eskaini zuen Osakidetzak pandemia egoeran, eta kasu askotan oraindik ere horrela segitzen du.

Bai, neurri hori hartu genuen, eta nik airtortzen dut faltan bota dudala pazienteak aurrez aurre ikustea. Kontsulta presentzialak berreskuratzen hasi ginenean, baina, herritar askok Osasun Zentrora joateko beldurra zeukan, eta askori kosta egin zitzaion medikuarengana edo erizainarengana itzultzea. Batzuek oraindik jarraitzen dute eskatzen tramite batzuk telefonoz egiteko, eta gogor egin behar izaten diegu ezetz esanez eta derrigorrez etorri behar dutela ohartarazi behar izaten diogu askori.

Errealitatea da beraz, familia medikurik ez dagoela, baina, medikuntza fakultateak ikaslez beteta daude. Egoerari buelta emateko garaiz gaudela uste duzu?

Zaila da. Fakultateak beteta eta ikasleak itxaron zerrendan egoten dira askotan, baina izan daiteke plaza nahikorik ez egotea edo ez eskaintzea mediku plaza nahikorik... Guk karrera amaitu genuenean bagenekien ez genuela lan faltarik izango, familia medikuen hasierako promozioak denak batera jubilatuko zirelako. Gertatzen dena da jubilatutako diren medikuak gehiago direla mediku berriak baino. Hori izan daiteke arazoetako bat, baina ez da bakarra. Medikuntza ikasle bat formatzeko hamar urte behar dira, dena ondo joanez gero, eta hamar urte, urte asko dira. Unibertsitateko plaza kopurua handitu daiteke, baina hori ere ez dut uste soluzioa denik, epe motzera ez behintzat. Nire ustez gure espezialitatea erakargarri bihurtu behar da nolabait, eta jakina, 40 zereginetatik erdiak administrazio lanak badira, hori ez da erakargarria ikasleentzat.

JOAN DA SAN JOAN

✍ Asier Orbea
👤 Asier Orbea / Ainara Argotia

San Joan bezpera eguna ospatu zuten Mendaron, azkeneko urteetan baino xumeago. Aurten ez da akelarrerik izan, ez behintzat azkeneko urteetan egin den ospakizun handirik, baina egin zuten Ludotekatik abiatu zen kalejira arratsaldean. Gauean, berriz, suaren bueltan elkartu ziren herritarrak. Su handia egin zuten plazaren erdian, eta su txikiago bat bazter batean, nahi zuenak gainetik salto egin ahal izateko. Ekaitz artean joan zen San Joan bezpera eguna, eta Elgoibarren behintzat su gehiago ikusi zen zeruan lurreen baino. Goiko Errotako zubi ondoan piztu zituzteten suak gaztetxoek. Argazkiak: barren.eus





37 lagun inguruk jardun dute aurten Tertuliak programan



Aurtengo ikasturtean 37 lagun inguruk parte hartu dute Tertuliak egitasmoan, zazpi taldetan banatuta. Irailaren amaieran ekin zioten eta bederatzi hilabetez jardun dute astean behin tertulian; 35 ordu, denera.

Euskaraz berba egiteko zailtasunak dituztenei zuzenduta dago Tertuliak programa (bidelariak). Bakoitzak dakiena praktikan jarri eta ez dakiena ikastea da helburua. Horretarako, talde bakoitzean

euskaraz ondo moldatzen den lagun bat dago (bidelaguna), eta bere ardura izaten da tertulia saioak dinamizatzea.

Ekainaren 23an eman zioten amaiera Tertuliak programaren 2021-2022 ikasturteari. Urtero moduan, kultur jarduera bat izan zuten hasteko, 'Erdaldun berrien kluba' bakarrizketa aurtengoan, Olatz Pagaldai antzezleriarekin, eta lagunarteko afari-merienda, gero.

Elgoibarko Bertso Eskolak datorren ikasturterako matrikula ireki du



Datorren ikasturterako Bertso Eskolan izena emateko epea zabaldu du Udalak. Interesa duenak bere datuak eman beharoko ditu Elgoibarko Udalararen Euskara Sailean, telefonoz 943 744 366 zenbakira deituta, edo emailaz euskara@elgoibar.eus helbidera mezu bat bidalita. Izena emateko epea uztailaren 26ra arte egongo da zabalik.

8-16 urte bitartekoentzako eskolak eskainiko dituzte, eta saioak astelehen arratsaldetan izango dira, ordubetz, Aita Agirre kulturgunean. Irakasle lanetan Eneko Beretxinaga soraluzetarra arituko da, aurreko ikasturtean bezalaxe.

Udako oporren ostean, irailaren bigarren hamabostaldian jarriko dute martxan Bertso Eskolaren ikasturte berria.

Asteburuan jarraituko du festak Idotorben

Eguaztenean izan zen San Pedro Eguna, ekainaren 29an, eta Idotorbeko zaindariaren eguna ospatu zuten auzoan. Meza egin zuten, eta prozesioa ere bai. Lagunak pilota elkarteak antolatuta, hainbat pilota partida ere jokatu zituzten, eta eguerdian auzotarren bazkaria egin zuten.

San Pedro jaiak ez dira baina hor amaitu, eta asteburuan izango dute segida. Gaur lagunarteko afaria eta mus txapelketa egingo dituzte, eta biharkoa ekitaldiz beteriko eguna izango da. Umeentzako zein helduentzako ekintzak egingo



dituzte bihar, eguerdian hasi eta goizaldeko ordu txikiak arte. Egitaraua agendan duzue.

Emozioen posterra eskuragarri jarri du Atxutxiamaikak



Atxutxiamaikak eta Udal Ludotekak antolatzen dituzten jardueretan hezitzaileek umekin emozioak lantzeko erabiltzen duten posterra eskuragarri jartzea erabaki du Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topaguneak. Umearekin lan egiteko sortutako baliabide bat da hau, baina beste heldu batzuekin ere erabili daiteke. Posterraren erabilerari buruzko argidibe gehiago www.elgoibarkoizarra.eus webgunean aurkituko duzue eta bertan daukazue posterra deskargatzeko aukera.

Urazandiko jaietako herri bazkarirako tiketak salgai daude

Urazandiko bizilagun talde batek auzoko jaiak antolatu ditu, eta datorren barikuan hasiko dira. Uztailaren 8tik 10era ospatuko dituzte, eta besteak beste, herri bazkaria egongo da. Interesatuek Kima bioestetika dendan edo Celia tabernan eskuratu ditzakete bazkaritarako tiketak.

Rüdiger taldearen kontzertua eta Lady Fingers DJaren saioa antolatu dituzte Mendaron Gararock jaialdia aurkezteko

Irailaren 24rako iragarri dute Gararock jaialdia Mendaron, baina aurrez, uztailaren 8rako, aurkezpen-kontzertua lotu du Gararock Taldeak. Santa Kruzko parkean izango da kontzertua, Azpilgoetan, 19:00etan hasita, eta bi gonbidatu berezi izango dira: batetik, Rüdiger taldea, eta bestetik, Lady Fingers DJa.



CD Elgoibarren zuzendaritzaren etorkizunak ilundu ditu klubaren emaitza onak

Joan zen astean egin zuen CD Elgoibarrek urteko batzar orokorra, eta zuzendaritzako kideek aurkeztutako emaitzak "onak" izan ziren arren, klubaren etorkizunari buruzko zalantzak izan ziren kezka iturri nagusia. Izan ere, Jon Basurto presidentearen zuzendaritzak kluba lagatzeko asmoa jakinarazi zuenetik hainbat aste pasatu diren arren, oraindik ez dago erreleboa hartzeko talderik. Jon Basurtok argi esan zuen berriro ere datorren urteko denboraldia aurtengoa prestatu duten ilusio berarekin prestatuko dutela, baina beraien lana abenduan bukatuko dutela gaineratu zuen, hain zuzen ere, Gabonetako errifaren zozketaren ostean. Une horretatik aurrera klubak dituen oinarrizko lanak bakarrik egingo dituzte: kuotak kobratu eta fakturak eta entrenatzaileen soldatak ordaindu. Data horretarako erreleborik egon ezean, ezohiko batzarra egingo dute urtarrilean bazkideekin.

Emaitza onak

Zuzendaritzako kideek bi datu nabarmendu zituzten, batez ere: Batetik, Haundiren denboraldi "bikaina" aipatu zuten eta Errege Koparako sailkatzea lortu ez duen arren, taldeak denboraldi "oso ona" egin duela nabarmendu zuten. Besetik, Erregional taldearen eta Ohorezko Infantil Txikiren igoerak ere aipatu zituzten. Gainerako taldeetan denetarik izan da aurtengo denboraldian, baina, oro har, klubak izan duen hazkundean jarri zuen begia zuzendaritza taldeak, eta hazkunde



Aitor

horretan entrenatzaile taldearen lana garrantzitsua izan dela aipatu zuten, Futbol Eskolatik Haundira arteko jokalariai hezteko gaitasuna dutela nabarmenduz. Datorren urtera begira talde hori indartu egingo dute, alebin mailako eta emakumezkoen taldeko koordinatzaile postuak sortuz. Jose Mari Laderak eta Itziar Gurrutxagak beteko dituzte postu horiek.

Ekonomiari dagokionez, 209.662,26 euroko gastuak 210.869,28 euroko sarrerak aurkeztu zituzten, beraz, aurtun 1207,02 euroko irabaziak izan ditu klubak. Gastuen artean hauek nabarmendu zituzten: Soldatak (66.580 euro), primak (26.400 euro), kirol materiala (25.266 euro), kilometrajeak (19.450 euro), Federazio gastuak (16.486 euro), arbitrajeak (12.649,89 euro) eta autobusak (12.004 euro). Sarreretan, berriz, ondorengoak: errifak (49.942 euro), bazkide-kuotak (41.384 euro), inskripzioak (39.750 euro), publizitatea (30.995 euro) eta Realarekin duten hitzarmena (25.407,68 euro). Gaur gaurkoz CD Elgoibarrek 98.967,62 euroko ondarea dauka.

Futbol Egokituko Topaketa egingo dute bihar Mintxetan

Gipuzkoako Futbol Federazioak, Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioak eta Aldundiak Futbol Egokituko Topaketa antolatu dute biharko, Mintxetan. Futbol egokituko hainbat saio egiten dituzte probintzian barrena, herrietako klubuen inplikazio eta laguntzarekin, eta saio horiei amaiera emateko azken festa izango da Elgoibarren bihar egingo duten topaketa. 17:30ean hasiko da saioa. Urritasun fisikoa edo adimen desgaitasuna duten kirolariek parte hartzen dute topaketa horietan, eta antolatzaileen berbetan helburua da herri ezberdinetako haur eta gazteak elkar ezagutu eta kirolaren bidez ondo pasatzea, aisia aktiboa sustatuz.



LaRoitakoek egun osoko egitaraua prestatu dute erronkaren harira

Porra, Mauxitxa txaranga, bazkari herrikoa, karropoteoa, rock kontzertua... osagai guztiekin hornituta dator aurten LaRoita Erronkaren bigarren ekitaldia; berrituta eta handituta. Bihar (uztailak 2) jokatu dute bigarren goz LaRoita Erronka. Antxon De La Arada, Ioritz Leiaristi eta Ivan Rogel arituko dira lehian aurtengoan, eta iazko erronka bera jokatu dute; alegia, Mutrikuko portua, Elgoibarko plaza eta Karakateko tontorra lotuko dituzte triatloian: igerian, bizikletan eta saltaka. Baina, kirol erronka baino gehiago izango da aurtengoa, egun osoko egitarauarekin jantzi baitute eguna. Kirol erronka 9:30ean hasiko dute Mutrikuko portuan, eta 11:30ean egingo dute sari banaketa ekitaldia, Karakate gainean. Antolatu duten porraren irabazlea ezagutzera emateko ekitaldia ere egingo dute, 13:30ean, Maalan. Jarraian, poteoa hasiko dute Mauxitxa txaranga girota. Gero, bazkari-herrikoa egingo dute Karakate jatetxean, 15:30ean. Bazkalostean herrigunera gerturatuko dira berriro, 18:30ean hasiko



duten Karropoteoarekin. Karakate jatetxetik Gazteteraino egingo dute. Eta egunari amaiera emateko, Jezy's Tyros taldearen rock kontzertua antolatu dute. 20:00etan hasiko da Sutegixa Gaztetelean. Iaz egin zuten moduan, LaRoitakoek zuzenean emango dute erronka, Youtube bidez eta Instagram (<https://www.instagram.com/laroitaerronka/>) bidez, esatarien komentarioekin.

Yolanda Mateos eta Maria Badiola gailendu dira pala txapelketan



📷 Aitor

Maria Badiolak eta Yolanda Mateosek osatutako bikoteak irabazi du Elgoibarko Emakumezkoen Binakako Pala Txapelketaren 9. ekitaldia. Domeka eguerdian jokatu zuten finala, eta Mateosek eta Badiolak 22-17 irabazi zioten Amaia Aizpururi eta Elaia Oiartzabali. Kalegoen plazan hasi zuten finala, baina euria hasi zuenez Ikastolako frontoian bukatu zuten partida. Aldiz, hirugarren eta laugarren postuak erabakitzeko partida Kalegoengo frontoian jokatzeko aukera izan zuten, aurrez jokatu zutelako. Lau palista mutrikuar aritu ziren lehian eta Maite eta Iratxe Barruetabeña ahizpek 22-8 irabazi zieten Idoia Arrillagari eta Eva Ibarrolari.

Iker Izagirrek bi pilota txapelketa irabazi zituen aurreko asteburuan

Lazkaoko LAPKE pilota elkarteko kide den Iker Izagirre elgoibartarrak bat ez, bi txapelbururatu zituen aurreko asteburuan. Batetik, eskuz banaka lau t'erdiko Gipuzkoako Txapelketako finala jokatu zuen barikuan, Lazkaoko Joxe Miel Barandiaran pilotalekuan. Izagirrek Azpeitiko Ilunpe taldeko Iker Otaegi izan zuen aurkari kadeteetako Lehen Mailako finalean, eta 16-22 gailendu zen elgoibartarra. Hortaz, bera da Gipuzkoako txapelduna. Bigarren txapela, berriz, domekan eskuratu zuen Izagirrek. Kasu honetan taldearekin, bakarka beharrean. Izan ere, afizionatu mailako pilotarien artean entzute handia duen Berria Txapelketa irabazi zuen Lazkaoko LAPKE taldearekin. Hiru hilabete pasako lehiaren ondoren, Euskal Herriko bi pilota elkarterik onenak elkarren aurka aritu ziren finalean, Hernaniko Udal pilotalekuan. LAPKE Lazkaoko klubak nagusitasunez irabazi zion finala Tolosako taldeari, eta lehen aldiz jantzi zuten txapela. Finaleko hiru partidak irabazi zituen Lazkaok. Izagirrek kadeteen mailako neurketa jokatu zuen, Ibarluzearekin bikotea osatuz, eta 22-4 irabazi zieten Tolosa eta Castro tolosarrei.



Maite Maiora txapeldunorde Kanadan jokatu duten Minotaur Skyrace proban



Skyrunner World Series izeneko Munduko Koparen zirkuituak hamahiru lasterketa ditu, eta horietako bi Europatik kanpo izan dira: Japonian jokatu zuten zirkuituko estreinako lasterketa; eta, joan den zapatuan Kanadan jokatu zuten Minotaur Skyrace proba, zirkuituko bosgarrena. Blairmore herrian hasi eta amaitu zen proba eta Kanadako Mendi Harritsuetan barrena ibili ziren parte hartzaileak, paisaia ikusgarrietan. 33,5 kilometroko eta 2.900 metroko desnibel positiboko ibilbidea osatu zuten, eta Emma Cook-Clarke (Arc'teryx) kanadarra izan zen azkarrena emakumezkoetan (5:05.52). Maite Maiora (Raidlight) irabazlearengandik lau minutura ailegatu zen helmugara, eta 11 minutuko aldea atera zion hirugarren egin zuen Lindsay Webster (Craft) kanadarrari.

Sanlok festa giroan esan dio agur denboraldiari



📷 Roberto Sanchez

Pandemia aurreko ohitura berreskuratuz, bazkari baten bueltan agurtu zuten denboraldia Sanloko jokalaria, entrenatzaile, zuzendaritzako kide eta kirol taldearen bueltako beste hainbat lagunek. 497 lagun batu ziren Sigmako aparkaleku estalian egin zuten bazkarian. Eguraldiak gehiegi lagundu ez arren, giro ezin hobean ospatu zutela Sanlo Festa azaldu dute eskubaloi taldeko arduradunek. Bazkalostean

urteko jokalaria aipagarrienei oroigarriak banatu zizkieten eta musikarekin eta dantzarekin izan zuen segida festak. Goizean, Sanlo Festaren barruan, eskubaloi partidak jokatu behar zituzten Sanloko jokalaria gaztetxoek Kalegoen plazan, baina eguraldiak horretarako aukerarik eman ez zuela-eta, Olaizaga kiroldegian egin zuten ekitaldia. (Argazkiak: barren.eus-en)

SANLOKO 2021-2022KO JOKALARI AIPAGARRIENAK, TALDEKA

- | | |
|--|--|
| ■ Maialen Loiola (Gaurve Asesores, sen. emak.) | ■ Irati Arriola (Astigarraga GYS Sport, kad. neska.) |
| ■ Unai Guardia (Alcorta Forging Group, sen. giz.) | ■ Maddi Esnaola (Neurri, kad. neska.) |
| ■ Maialen Alonso (Arilan, senior. emak.) | ■ Sara Oyarzabal (Dario Bus, inf. neska.) |
| ■ Iker Gonzalez (Pizzeria Salento, sen. giz.) | ■ Gari Narbaiza (Zubacor, inf. mut.) |
| ■ Garazi Arriola (CIMDE, jub. neska.) | ■ Haizea Aranbarri (Tecnifuelle, inf. neska.) |
| ■ Ekain Melica (Deca, jub. mut.) | ■ Maialen Bereziartua (Bacalaos Alcorta, inf. neska.) |
| ■ Amaia Mendizabal (Bankoa, jub. neska.) | ■ Xabat Ibirriaga (Hotel Txarriduna, inf. neska.) |
| ■ Ruben Barriga (Deuko Izarra, jub. mut.) | ■ Jone Kortaberria (Pneumax, inf. neska.) |
| ■ Paula Guarrotxena (Salento Gelati, kad. neska.) | ■ Oier Gabilondo (Sanlo Eskola) |
| ■ Mikel Diego (Urkunde, kad. mut.) | ■ Lucia Larrañaga (Sanlo Eskola) |

Javier Ezenarro Oroitzarrea txirrindulari lasterketa, bihar

Mendaroko Herriko Enparantzan hasi eta amaituko da bihar (uztailak 2) jokatuko duten Javier Ezenarro Oroitzarrea txirrindulari lasterketa. Junior mailako txirrindularientzako lasterketa izango da eta 95 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute, bi aldiz Bergararaino joan eta beste birritan Kalbarioko gaina igoz. 16:00etan hasiko da lasterketa eta antolatzaileen aurreikuspenen arabera, 18:20ak aldera ailegatuko dira lehenengo txirrindulariak helmugara. Mendaroko Txirrindulari Elkarteak eta Gipuzkoako Txirrindulari Federazioak antolatzen dute Javier Ezenarro Oroitzarrea, Mendaroko Udalaren babesarekin.





LEHENGO LEPOTIK BURUA

  Asier Orbea

Bi urteko etenaren ostean, ezer gutxi aldatu da Nahaste Borrasten, eta lehenko lepotik burua jarraitzen dute proba honetako dominatzaile nagusiek. Iñigo Lariz eta Ainhoa Lendinez izan dira irabazleak. Larizek 18:06 denboran osatu zuen proba: 7 kilometro bizikletan, 400 metro 25 kiloko zakuarekin eta 1,5 kilometro saltaka. Ander Ariznabarreta (18:53) eta Gorka De La Horra (19:10) sailkatu ziren bigarren eta hirugarren postuetan. Ainhoa Lendinezek min hartu zuen zango batean, baina, hala eta guztiz ere, proba amaitzea lortu zuen, 23:41eko denbora eginda. Hamabosgarrengoz irabazi du lasterketa Lendinezek, eta hamargarren aldiz Larizek. 31 lagunek hartu zuten parte Kimetz elkarteak antolatzen duen lasterketan. Argazkiak eta bideoa: barren.eus





LANA

Eskaerak

Adinekoak zaintzeko prest nago, baita asteburuetan ere.
643 071 900

Garbiketak egiteko edo adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia daukat. 652 020 464

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka edo jardun erdiz. Esperientzia eta beharrezko titulua ditut. Berehala hasteko moduan nago. 632 415 374

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan edo orduka. 662 460 266

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan edo orduka. Gauetz lan egiteko prest. Titulua daukat. 631 425 686

Garbiketa lanak egin edo adinekoak zainduko nituzke. Esperientzia eta soziosanitario titulua ditut. 631 212 497

Eskaintzak

Edergintza zentro baterako estetizista behar da. Esperientzia baloratuko da. Euskaraz jakitea, ezinbestekoa. Bidali cv olamarsan@gmail.com helbidera.

OSPAKIZUNAK

1960an jaiotako en bazkaria, irailaren 24an. 12:30ean Zubi Ondo elkartearen batuko dira, argazkia atera eta mokadutxoak egiteko. 15:00etan Sigman bazkalduko dute. 60 euro sartu behar dira irailaren 10erako: ES71 3035 0007 23 0071138822

Sigma auzoko en bazkaria, Uztailaren 23an, Sigmako frontoian. Izena emateko 50€ sartu behar dira Laboral Kutxako kontu honetan, uztailaren 10erako: ES53 3035 0007 22 0070075881

BESTELAKOAK

DBH4-ko liburuak erosiko nituzke. 637 587 811 (Amaia)

Balazta, saskitxoak eta jarlekua dituen helduentzako taka-taka saltzen da, berri-berria. Baita ere berri samar dagoen aluminiozko helduentzako beste taka-taka bat, etxean ibiltzeko egokia. 659 329 118



1958ko erretratu zahar bat aurkitu dut Pedro Migel Urruzuno kaleko zabor edukiontzien ondoan. 656 756 226




 <p>Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas Euzkoako Enkainatutako Enkainatzaileen Lantalde Koordinatzailea</p>  <p>ROSA Mª PINTADO</p> <p><i>Etaldearen Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p>660 969 679 rosapf@telefonica.net</p>	<p>Urbanizazio batean bizi naiz, beheengo solairuan, lorategia duen etxe batean, eta orain, egurrezko egitura bat jarri dut lorategian, estalki bat jarri ahal izateko. Azkeneko batzarrean, egitura jakin bat jartzea derrigortzeaz hitz egin zen, eta jakina, han adostu zen egitura ez da nik jarri dudana. Metalezko egiturak jartzea erabaki du komunitateak eta nik egurrezkoa jarri dut. Jakin nahiko nuke ea jarritakoa kentzera behartu nazaketen.</p> <p>Normala da batzarretan kanpo itxurarekin lotura duten egiturak zelakoak izan behar diren zehaztea, eraikinari berari eragiten diotelako. Akordio horrek egokiak dira, beti ere legeak ezarritako prozedura betez egin badira, eta beraz, derrigor bete beharrekoak dira. Bete ezean, komunitateak epaitegira jo dezake akordio hori betearazteko eskatzeko eta aukera izango du egitura kentzera derrigortzeko, jarritakoa ez badator bat batzarrean adostutakoarekin.</p> <p>AHOLKUA: Eraikinaren kanpo itxurari edo elementu komunei eragiten dien zerbait jarri aurretik komeni du komunitatearekin adostea, komunitateak jarraitu beharreko protokoloa martxan jarri ahal izateko, gerta daitekeelako gerora beste etxejabe batzuek ere nahi izatea azpiegitura horiek egokitzea.</p> <p>GOAR AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2</p>
--	---



Argazkiak eguzten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira Barreneko bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo 📞 688 634 044 bidalita.



Zorionak, **printzesa**, ekainaren 26an 7 urte bete zenituelako. Amatzoren eta zure anaia Eriken partetik, zoriontsua izan zaitezten opa dizugu.



Zorionak, **Nora**, atzo 8 urte bete zenituelako! Primeran ospatu genuen! Muxu handi bat etxekoan partez.




Zorionak, **Kai!** 5 urte! Ondo pasa eta muxu asko, batez ere, Itxasoren partez.



Zorionak, **Libe**, igandean 6 urte beteko dituzulako. Segi beti bezain alai eta jator. Muxu bat familiakoan eta, bereziki, Aimarren partez.



Zorionak, **Julen eta amama**, gaur eta astelehenean urteak beteko dituzuelako! Astebukaeran ospatuko dugu. Muxu handi bat etxekoan partez!



Nora eta Danel, gaurko eguna izan dadila ahaztezina!. Legardako familiaren partetik.

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€.
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO
BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarreko agurra: 3,50€.
Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.



KONTSULTATEGIA

“ *Nola mantendu ahoa garbi eta osasuntsu?* ”

Gaurkoan hortzetako osasun egokia izateko hainbat zeregin jorratuko ditugu:

1. Hortzak egunero eskuilatu behar dira: Egunero eskuilatze egoki baten bidez, ahoan pilatutako elikagaiak desagertu egiten dira, sarriaren metaketa eta esmaltearen desmineralizazioa murrizten dira.

2. Hortzetako zetaren garrantzia: Hortzetako zetaren erabilera garrantzitsua da, gutxienez egunean behin, hortzen artean pilatutako hondarrei aurre egiteko.

3. Hortzen azterketa: Garrantzitsua da zure hortzetako konfiantzako klinikara joatea, urtean behin gutxienez, eta ez bakarrik aho-hortzetako osasun arazoren bat dagoenean. Profesional baten aldizkako berrikusketa egoki baten bidez, etorkizunean izan litezkeen gorabeherak saihestuko ditugu.



ALDAZ HORTZ KLINIKA

San Bartolome, 22 - 20870 Elgoibar
iyd@dentalaldaz.com

943 366 377

2 ZAPATUA

LaRoita erronka

09:30 Mutrikun igeriketa.

11:30 Sari banaketa, Karakaten.

13:30 Porraren irabazlea, Maalan.

15:30 Herri bazkaria, Karakate jatetxean.

18:30 Karropoteoa, Karakate jatetxetik Gaztetxera.

20:00 Jezy's Tyros taldearen kontzertua, Gaztetxean.

16:00 Javier Ezenarro Oroitzarrea. Txirrindulari lasterketa, Mendaron.

17:30 Futbol egokituaren topaketa, Mintxetan.

8 BARIKUA

19:00 Bideo foruma: 'La boda de rosa'. Haizeak antolatuta, Loredi Salegik gidatuko du saioa. Lilan.

19:00 Rüdiger musika taldea eta Lady Fingers DJaren emanaldia. Mendaron, Santakruz parkean.

22:00-02:00 Ultratrail lasterketari ongi-etorria. Azkaraten.

Idotorbeko jaiak

1 BARIKUA

20:30 Lagunarteko afaria, San Pedro elkartearen. 30 euro pertsonako.

Ondoren, mus txapelketa. Izen-ematea: 25 euro.

2 ZAPATUA

12:30 Bolo txapelketa.

16:30 Umeentzako jolasak eta Russoren animaliak.

20:00 Triki-mendi buelta.

21:00 Lagunarteko afaria, San Pedro jatetxean (943 740 010).

23:00 Gaupasa, Unai eta Oier taldearekin.

02:00 Sorpresa eta parrillada, doan, Egi-Maite gourmetek eskainita. Orgatilarren zozketa zapatuan egingo dute, goizaldean.



Eta, Debabarrenean zer?

Iturri Ondoan: bertso saio musikatua Deban, gaur, 22:00etan, Plaza Zaharrean

Tene Mujika hil zeneko 40. urteurrena ospatuko dute gaur Deban, bertso saio musikatu batekin. Uxue Alberdi, Miren Amuriza, Alaia Martin eta Nerea Ibartzabal arituko dira bertsoetan, Amaia Agirre gaitzartzailearen aginduetara. Musikariak, berriz, Araitz Bizkai eta Gari Otamendi izango dira.



Aire libreko zinea
(Kalegoen plazan)

'Elkano:
Lehen mundu bira'
8 barikua: 22:30

PINTURA ETA DEKORAZIOA
CORDON VILARCHAO
cordonvilarchao@telefonica.net
San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26
943 740 570 / 636 986 162

Jon Aranao
Guillermo Torres
Elgoibar
Albaitaritzza

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel.: 943 740 704 - 639 047 337
Astelehenetik ostirdera: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
Larunbatak: 11:00 - 13:00

Leopoldo zerbitea doukagu.
Datu onak hartzen.

Botika ordutegiak: 09:00-13:00 / 16:00-20:00

GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00 Iluntzean: 20:00-22:00 Larunbatak: 09:00-14:00 (■)

1 BARIKUA Egunez Yudego Iluntzean Yudego	2 ZAPATUA Egunez ■ Oruesagasti ■ Garitaonandia Iluntzean ---	3 DOMEKA Egunez ■ Oruesagasti Iluntzean ---	4 ASTELEHENA Egunez Barrenetxea Iluntzean Barrenetxea
5 MARTITZENA Egunez ■ Ibañez Iluntzean Garitaonandia	6 EGUAZTENA Egunez Garitaonandia Iluntzean Garitaonandia	7 EGUENA Egunez Arriola Iluntzean Arriola	8 BARIKUA Egunez ■ Fernandez Iluntzean Barrenetxea
■ Fernandez: Herriko enparantza,4 Garagartza (Mendaro) 943 756 142	■ Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze) 943 751 638	■ Oruesagasti: Kalebarren, 9 (Soraluze) 943 751 384	Urte guztian, gauzez: 22:00-09:00 Esther Mendinueta Berastegui Urkizu pasealekua, 6 (Eibar) 943 820 106


BARREN astekariak kazetaria behar du asteburuetan lan egiteko



ESKATZEN DA:

- Elgoibarren eta Mendaron dauden ekitaldien jarraipena egitea.
- Argazkilaritza eta bideogintzaren oinarrizko ezagutzak.
- Webgune eta sare sozialen ezagutza.

Interesatuak bidali CV helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus



Aste honetako erretratu zaharra Gloria Odriak ekarri du BARRENEKO erredakziora. 1960. urtean ateratakoa da, Gorbea mendian. Elgoibarko lagun talde honek bazeukan mendira joateko ohitura, eta tarteka txango luzeak ere egiten zituzten. Gogora ditzagun zeintzuk diren argazkian ageri direnak:

Javier Cengotita, Fermin Zubiaurre (†), Jose Mari Igartua (†), Gloria Odria, Angel Astigarraga (†) eta Patxi Lizarralde.



Fermin Lizarralde Uribe-Etxeberria

2022ko ekainaren 21ean hil zen, 90 urte zituela. Familiaren izenean Elgoibarko San Lazaro egoitzako guztioi eskerrik asko gure senar/aitarekiko izan duzen arreta eta maitasunarengatik.





Julia Rodriguez Rodriguez

2022ko ekainaren 25ean hil zen, 86 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

**Maite zaitugu, amama.
Ez zaitugu ahaztuko.**

Manoli, Andoni, Julene eta Olaia



III.URTEURRENA

Arrate Aranguren Urkidi
"Beraseta"

2019ko uztailaren 2an hil zen, 72 urte zituela.

**Zurekin amets, zurekin negar,
zurekin barre, zurekin musu.
Gutako bakoitzean bizirik jarraitzen duzu.
Gugan beti, maite zaitugu.**

Etxekoak



ETXEBERRIA
EHORZKETA-BEILATOKIA

943 741 327 (24 orduz)
635 756 295
629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar
info@funerariaetxeberria.com
www.funerariaetxeberria.com

**Kutzak, trasladoak eta koroak.
Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.
Erietxe zentruetan zerbitzuak.**

G R E M I O N E N G I D A

ARROZTEGIA

Ulazia
ARROZTEGIA ETA ENBALAJEAK
Alibixuri industrialdea, 1-O/ 1-P
943 740 547



ELEKTRIZITATEA

egoluz
ELEKTRIZITATEA S.L.
Andres: 630 957 345
677 512 462
Pedro Migel Umuzuno, 14 behea
20670 ELGOIBAR
Bulegoa: 943 200 697
ego.luz@hotmail.com

ITURGINTZA

ONGI Iturgintza
Pedro Muguruza Etorbidea, 11
ELGOIBAR
Tel: 943 254 522
Faxa: 943 254 523
ongi@ongi.elgoibar.com
www.ongi.elgoibar.com

ARROZTEGIA

iraolagoitia
arroztegia - altzariak - etxe-aldaketak
Kurutz-gain industrialdea, 9
20850 Mendara
943 756 112
636 497 485
www.iraolagoitia.com

LEIHOAK

LODOSO LEIHOAK
SIGMA INDUSTRIALDEA, 223
lodosof@gmail.com
943 743 490

ITURGINTZA

SANTANA
Igor Santana
ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.
Urazandi kalea, 17, behea
Elgoibar
943 740 530 / 605 714 905
santanaiturgintza@gmail.com

ARROZTEGIA

MAR
ARROZTEGIA
Olaso industrialdea, 17 behea
943 531 471
609 054 978
carpinteriamar@hotmail.com
f

PINTURA

BIOK
dekorazioa
Uparitzaga, 14 - Elgoibar
943 741 552
606 431 120
biok@biokdekorazioa.com

ITURGINTZA

PAGOAGA S.A.
BULEGOA ETA ERAKUSKETA
Pedro Migel Umuzuno, 8
943 740 512
Faxa: 943 743 565
tienda@pagoagasa.com
www.pagoagasa.com
BILTEGIA
San Antolin, 13 - ELGOIBAR
taller@pagoagasa.com
943 740 279

ARROZTEGIA

Aroztegia Carpinteria
ASIMA
Ermuaranbide, 18 - Elgoibar
687 150 226
650 026 631
636 886 322
943 744 225
asimaaroztegia@gmail.com

ERREFORMAK

ESTUDIOS ARRILLAGA
Erosano kalea, 15 behea - Elgoibar

- Proiektuak eta erreformak
- Sukaldeak
- Gremioen koordinazioa
- Obren zerbitzu integrala

943 744 019
605 713 168

IGELTSERITZA

A.Garate
Era guztietako igeltsaritza lanak egiten ditua
angelmgarate@gmail.com
Santa Ana kalea, 28 behea - 2. zkia
Elgoibar
610 226 651

ARROZTEGIA

Biena S.L.
ARROZTEGIA
Ermuaranbide, 12-14-16
tel/fax. 943 743 116
www.biena.us
info@biena.us
f

